

ALDAKETA BAINO GEHIAGO, SISTEMAK BERE HORRETAN SEGITZEKO AUKERA DAKAR PLANETAREN %30 BABESTEAK

2022ko apirilean Txinan egitekoa den COP 15 goi bileran hartu behar lukete ondoko neurria: 2030 urterako planetaren %30 gune babestu bezala sailkatzea. Munduaren Iparreko agintariek begi onez ikusten dute neurria, baita ingurumena kaltetzen ari diren multinazional boteretsuek ere. Lehen begiradan arraroa... Kezka eta kexua eragiten die haatik eremu hauetan bizi diren herritarrei –usu indigenak direnak–, eta “kolonialismo berdearen” logika salatzen dabilta. Azken hauen irakurketari so jarri gara.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Nazioarteko instituzio inportanteenak ados dira ondoko helburu handiari dagokionez: planetaren %30 “gune babestu” bezala sailkatzea 2030 urterako –izan erreserba natural, parke, monumentu nazional edota babesturiko paisaia gisa definituz–. Ingurumenarentzako Nazio Batuen Programaren azken datuen arabera, gaurko egunean Lurraren %17 dugu babesturik –orotara 20 milioi km². Ideia bat ukaiteko, Europak 10 milioi km² ditu–. Hots, hamarkada honetan eremua bikoizteko helburua mahai gainean dute. Apirilean Txinan egitekoa den Bioaniztasunari buruzko Nazio Batuen COP 15 gailurreko neurri gotorrenetakoa izanen dute eta iraila hastapen honetan ere Marseillan burutu Naturaren Munduko Kongresuan aipagai zuten –bertan finkatu dituzte COP 15ean gobernuak bideratuko zaizkien gomendioak–.

Bere horretan, helburua ederra eta ausarta dute: bioaniztasuna zaintzea eta faunaren zein floraren desagerpen bortitza mugatzea. Alta, kongresuaren parean militante ekologistek *Notre terre, notre nature* izeneko kontra-gailurra burutu zuten, helburu eder honen itzalguneak azaleraziz. Ekologisten kritikaz gain, Naturaren Munduko Kongresuaren diruztatzaileen zerrendak ere du neurriari buruzko mesfidantza areagotzen: Nutella, PNB Paribas bankua, Kering, Veolia, L’Oreal, JCDecaux

eta beste multinazional anitz –guztiak berdin-berdin naturaren suntsitzaile gisa ezagunak–. Naturaren Munduko Kongresuan hainbat neurri aipatu bazituzten, planetaren %30 babesteko neurri horretan zentratu ziren kontragailurrean, “Naturaren kontserbazioa deskolonizatu” lema jarritz lehen edizio honi. “Planetaren herena babestutako eremu bihurtuz, beraien lurretan baimenik gabeko ehiztari bihurtzen dituzte indigenak. Kristobal Kolonez geroztik izandako lur lapurtze handiena genuke” dio Green Finance Observatory egiturako Frederic Hache irakasleak.

Azken finean, helburua bezain garrantzitsua dugu helburura heltzeko bidea. Bideari ez zaio nahiko begiratzen Hacheren arabera eta justuki, bidean dira kalte gehienak. Lehenik eta behin babestu nahi diren eremu hauetan –eta hauei esker– milaka eta milaka herritar bizi direlako. Sailkapena gauzatu gero, orotara 300 milioi herritar lirategi desjabeturik eta mugiturik, Survival, Minority Rights Group International eta Rainforest Alliance Gobernu Kanpoko Egituren (GKE) kalkuluen arabera.

Zehaztu beharrekoa da haien lurretatik kanporaturiko gehiengo zabala munduaren Hegoan dela eta gainera, hauetariko anitz herritar indigenak dira. Klima larrialdiari aurre egiteko neurri honen kutsu kolonialari buruz anitz idatzi izan du Guillaume Blanc his-

torialariak, *L’invention du colonialisme vert. Pour en finir avec le mythe de l’Eden africain* (“Kolonialismo berdearen asmakuntza. Eden afrikarraren mitoarekin bukatzeko”) liburuaren egileak. Ondokoa oroitarazten digu: “Europar, gure mendiak zaintzen dabilta artzain eta laborariak sostengatzen dabilta Unesco, UICN eta WWF. Baina Afrikan, badu 60 urte indarkeriaren bidez lurraldeak naturalizatzen dabiltzala: deshumanizatzen. Gaur egun oraindik hamar mila laborari eta artzain dira parkeetatik haizaturik, kontserbazioan berezitutako nazioarteko adituen begirada pean. Beste milioika dira zigorturik lurra landu izanagatik ala haien kabalak bertan alhatzeagatik”.

AUTOKTONOEN EREMUETAN DUGU BIOANIZTASUNAREN %80

Mundua irensten dabilen sistema eraldatzeko asmorik ez dute agintari eta multinazionalak. Hori horrela, baliteke desmasia ttipitzeko bidea izatea ahalbezain bat guneren babesa. Baina egitekotan, bertakoen eskubideen errespetuan egin beharko da. Berme honen osagaiak argi ditu autoktonoen eskubideen alde borrokan dabilen Survivalek: Lurrari loturiko eskubide kolektiboak eta ohi-turazkoak aitortu eta bermatu beharko dizkie bioaniztasunaren aldeko araudiak; eta hortik, gauzatu beharko dira indigenen eta lurrarekin harremanetan



BERTAKOAK KONTUAN HARTU GABE

planetaren %30 gune babestu sailkatuz gero, orotara 300 milioi herritar lirateke desjabeturik eta kanporaturik, hainbat Gobernu kanpoko erakunderen kalkuluen arabera (Argazkia: Survival).

diren herritarren alde doazen neurriak. Hots, lurretik bizitzeko eskubidea, autodeterminazioa eta onarpen eta erabakimen librea segurtatu beharko zaizkie erreserba ala parke bihurturiko espazio hauean aitzinetik ere bizi zirenei.

Bioaniztasunaren %80 autoktonoek okupaturiko lurretan kausitzen dugu. Datu honek balio digu ohartarazteko ez duela gizakiak bere horretan natura suntsitzen, baizik eta gure sistema kapitalistak. "Herri indigenek beraien lurrekiko dituzten eskubideak naturaren eta klimaren aldeko ekintzen erdigunean jartzean datza klima aldaketa borrokatzeko modurik eraginkorrena", irakurri daiteke kontra-gailurraren kari sorturiko webgunean. Munduko agintariak kontrako zentzura doaz: lurrarekilako

lotura moztu, erbestera, haien autonomia suntsitu eta sistema merkatal eta monetarioaren menpe ezarri. "Kolonialismo berdea" terminoa erabilia da joera honen izendatzeko. Gainera, okerrena da behin eremua lapurtuz gero, gehienetan bertaratzen direla bestelako herritarrak: turistik zein estraktibismoan dabiltzan multinazionalak.

"NATURAN OINARRITURIKO SOLUZIOEN" TRANPA LEGALA

Sistemak bere horretan segitzeko bide gisa ikusten du lurra babesteko estrategia hau Blancek: "Babesten dabiltzanak dira suntsitzen dabiltzan berak. Hori da garapen iraunkorraren inkoherentzia. Ez dute lortzen haienean suntsituriko natura salbatzen, eta horre-

gatik salbatu nahi dute han, Hegoan". "Naturan oinarrituriko Soluzioak" deitu multzoan sartzen da sailkapen hau. Lehen aldikoz 2009an erabilitako nozioa, 2015eko COP21 topaketaz geroztik txertaturik dute desafio ekologikoari aurre egiteko estrategian, ekosisteman oinarritzen den soluzio multzo hau. Baina *greenwashing* edo zuriketa berdea dugu hau, naturari prezio bat jarri eta konpentsazio mekanismoari esker, Hegoako egitasmo berde hauen garapenari esker, Iparrean logika kutsatzailearekin segitu dezaketelako multinazionalak.

Hori jakinik errazkiago ulertzen da nolatan planeta hezur-muineraino usiatzen dabiltzanek sostengatzen duten planetaren herena babesteko neurria. ●

ZINKUNEGI OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
 T. 943 420 624
 info@zinkunegioptika.com
 www.zinkunegioptika.com

f w